



# Birziklapena eta gaikako bilketa



## 1. Helburua

Zaborraren osagaiak eta zaborra gaika biltzeko eta birziklatzeko aukerak ezagutzea, baita birziklatzeak ingurumenari eragiten dizkion onurak ere.

## 2. Edukiak

- Birziklatzearen garrantzia ingurumenerako.
- Hondakinen gaikako bilketa: hondakinak gordetzeko edukiontziak eta lekuak.
- Hondakinen birziklatzea.
- Birziklatzeko metodoak.

### 3. Ariketak

#### 3.1. Aurretikoa

Ikasleen artean birziklatzeari eta gaikako bilketari dagokionez aurretiazko jakintzak aktibatzeke eta jakintza- eta inplikazio-maila balioesteko baliagarria izango da inkesta hau.

# INKESTA

## BIRZIKLATZEA, GAIKAKO BILKETA

---

*MARKA ITZAZU AUKERATUTAKO ERANTZUNAK. ZENBAIT GALDEREK ERANTZUN BAT BAINO GEHIAGO ONARTZEN DITUZTE.*

#### 1. Zure etxean hondakinak bereizten al dira?

- Bai  Ez

#### 2. Edukiontzi bakoitzean bota behar diren hondakin motak ezagutzen al dituzu?

- Bai, edukiontzi bakoitzeko hondakin guztiak ezagutzen ditut  
 Bai oro har, baina zalantza batzuk ditut  
 Ez oso ondo  
 Oso gutxi

#### 3. Adieraz ezazu hondakin hauetatik zein bota behar diren edukiontzi HORIAN.

- |  |  |
|--|--|
| <input type="radio"/> Papera             | <input type="radio"/> Artilezko jertsea  |
| <input type="radio"/> Latak              | <input type="radio"/> Pilak              |
| <input type="radio"/> Aluminiozko papera | <input type="radio"/> Tetra brick        |
| <input type="radio"/> Taper Ware         | <input type="radio"/> Kristalezko potoa  |
| <input type="radio"/> Banana-azala       | <input type="radio"/> Plastikozko poltsa |

Etxetresna elektrikoak

Potoaren metalezko tapa

**4. Zer da PUNTU BERDEA?**

Edukiontzirik ez duten hondakin espezifikoak eramateko leku bat

Edozein hondakin mota eraman daitekeen leku bat, eta ondoren bertan hondakinak gaika bildu eta sailkatu egiten dituzte.

**5. Ba al dakizu noiz pasatzen den puntu berdea zure auzotik?**

BAI

EZ

**6. Hondakin hauetatik guztietatik, zeintzuk eramango zenituzke puntu berdera?**

Detergente-ontzia

Lisaburdina zaharra

Aldizkaria

Olioia

Erradiografia

**7. Kaletik zoazenean eta produkturen bat kontsumitzen duzunean, zer egin ohi duzu bilgarriarekin?**

Normalki lurrera botatzen dut

Hurbilen dagoen zakarrontzian botatzen dut

Gorde egiten dut edukiontzi espezifikoan botatzeko, hondakinaren tipologia kontuan izanik

- 8. Atsegin duzun leku batera (hondartza, mendia) joaten zarenean, atsegin al duzu zaborra aurkitzea?**
- o Ez dut atsegin, baina ez zait axola
  - o Ikaragarri molestatzen nau lekua zikin egoteak
  - o Berdin zait, ez dut arretarik jartzen horrelako gauzetan
- 9. Okindegian, okinak poltsa batean jartzen dizu erosi duzun ogia.**
- o Poltsarik ez emateko esan ohi diot
  - o Ez badit poltsa ematen, eskatu egiten diot
  - o Poltsarekin noa etxera, erosoagoa baita
  - o Poltsarik ez jartzeko eskatu nahiko nioke, baina ez naiz ausartzen
- 10. Hainbat fruta-dendatan, eskatzen den fruta mota bakoitzarentzat poltsa bat jartzeko ohitura dute.**
- o Nik eskatzen diet elkarrekin nahas daitezkeen gauza handiak batera jartzeko, poltsatxorik gabe
  - o Gauza bakoitza bere poltsan jartzea atsegin dut, eta beraz ez dut ezer esaten
  - o Ez dut atsegin, baina ez naiz ausartzen ezer esatera
- 11. Zer egiten duzu arropa-dendetako poltsekin?**
- o Etxera iritsi orduko, arropa atera eta zakarretara botatzen ditut
  - o Berriro erabiltzen ditut

## 3.2. Tailerrari dagokionez

### ERDIKO MAILA

#### **ARIKETA 1: IKASLEEK SORRARAZTEN DITUZTEN HONDAKINAK IDENTIFIKATZEA ETA GAIKA BILTZEA.**

Taldetan, parte-hartzaileek hainbat txartel jasoko dituzte hondakin desberdinen irudiekin, eta beren etxeetan, eskolan, elkartean, kalean eta abar sorrarazi ohi dituzten hondakinak hautatuko dituzte.

#### **ARIKETA 2: HONDAKIN HORIEK SAILKATZEA ETA EDUKIONTZIETAN SARTZEA.**

Jarduera honetan, aurrez hautatu diren hondakinak sailkatuko dituzte fabrikatu diren materialaren arabera, eta, jarraian, dagozkien edukiontzietan (urdina, berdea, horia edo grisa) sartuko dituzte. Ondoren, hondakinen gaikako bilketaren helburua azalduko da, hainbat gai aztertuz: kutsadura, eta hondakinen gaikako bilketak ingurumenari egiten dion onura.

#### **ARIKETA 3: EGINDAKO HUTSEGITEAK AZTERTZEA.**

Aurreko jardueran egindako hutsegiteak egiaztatu eta zuzenduko dira, eta honako kontzeptu hauek azalduko dira:

- Zer hondakin bildu behar diren edukiontzi bakoitzean
- Zer egin behar den edukiontzietan sartu behar ez diren hondakinekin, baita pilekin edo aurrez aipatutako edukiontzietan sartzen ez diren ohiko hondakinekin ere.

Horren ondoren, parte-hartzaileek gaizki sailkatu diren hondakinak berriro bananduko dituzte eta dagozkien edukiontzietan sartuko dituzte.

#### **ARIKETA 4: ZABORRONTZIAK EGITEA.**

Etxean gehien sorrarazten dituzten hondakinak kontuan hartuta, gaikako bilketari dagozkion zaborrontziak egingo dituzte, horrela etxean zaborra antolatzeko. Honako hau azalduko zaie: ontziak bete ondoren, kaleko edukiontzietan hustuko dituzte, hondakinak nahastu gabe, eta etxe barruan edukiontziak ipintzeko lekuari buruzko gogoeta egingo da.

## **ARIKETA 5: INTERNET**

Jarduera honetan, parte-hartzaileak talde handi batean bilduko dira eta honako gai hauek errepasatuko dituzte: edukiontziak, edukiontzi horietan botatzen diren hondakinak, edukiontzi horiko hondakinekin eta edukiontzi urdinekoekin zer egiten den, eta edukiontzi berdearen birziklatze-katea.

## **MAILA AURRERATUA**

### **ARIKETA 1: IKASLEEK SORRARAZTEN DITUZTEN HONDAKINAK IDENTIFIKATZEA ETA GAIKA BILTZEA.**

Taldetan, parte-hartzaileek hainbat txartel jasoko dituzte hondakin desberdinen irudiekin, eta beren etxeetan, eskolan, elkartean, kalean eta abar sorrarazi ohi dituzten hondakinak hautatuko dituzte.

### **ARIKETA 2: HONDAKIN HORIEK SAILKATZEA ETA EDUKIONTZIETAN SARTZEA.**

Jarduera honetan, aurrez hautatu diren hondakinak sailkatuko dituzte fabrikatu diren materialaren arabera, eta, jarraian, dagozkien edukiontzietan (urdina, berdea, horia, grisa, laranja, marroia, ehun-gaien edukiontzia, garbigunea, optika, farmazia, tailer mekanikoa...) sartuko dituzte. Ondoren, hondakinen gaikako bilketaren helburua azalduko da, hainbat gai aztertuz: kutsadura, eta hondakinen gaikako bilketak ingurumenari egiten dion onura.

### **ARIKETA 3: EGINDAKO HUTSEGITEAK AZTERTZEA.**

Aurreko jardueran egindako hutsegiteak egiaztatu eta zuzenduko dira, eta honako kontzeptu hauek azalduko dira:

- Zer hondakin bildu behar diren edukiontzi bakoitzean
- Zer egin behar den edukiontzietan sartu behar ez diren hondakinekin, baita pilekin edo aurrez aipatutako edukiontzietan sartzen ez diren ohiko hondakinekin ere.

Horren ondoren, parte-hartzaileek gaizki sailkatu diren hondakinak berriro bananduko dituzte eta dagozkien edukiontzietan sartuko dituzte.

#### **ARIKETA 4: JOLASA**

Jolas honen bitartez birpasatuko da tailerren landutakoa, alde batetik azpimarratzeko birziklapenak eta gaikako bilketak ingurumenari eragiten dizkion onurak ( kutsadura sahiestea, lehengaien aurrezkia...) eta bestetik hondakin bakoitzarako egokiena den edukiontzia.

#### **ARIKETA 5: INTERNET**

Jarduera honetan, parte-hartzaileak talde handi batean bilduko dira eta honako gai hauek errepasatuko dituzte: edukiontziak, edukiontzi horietan botatzen diren hondakinak, edukiontzi horiko hondakinekin eta edukiontzi urdinekoekin zer egiten den, eta edukiontzi berdearen birziklatze-katea.



#### 4. Gaitasunekiko lotura

##### 4.1. Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, OLH eta eskola-jatorria duten taldeak

|                  | Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia | Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia | Elkarbizitzarako konpetentzia | Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia |
|------------------|--|--|-------------------------------|---|
| Erdiko Maila     | ✓  | ✓  | ✓                             |   |
| Maila Aurreratua | ✓  | ✓  | ✓                             |   |

|                  | Izaten ikasteko konpetentzia | Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia | Matematikarako konpetentzia | Zientziarako konpetentzia |
|------------------|------------------------------|--|-----------------------------|---------------------------|
| Erdiko Maila     | ✓                            | ✓  |                             |                           |
| Maila Aurreratua | ✓                            | ✓  |                             |                           |

|                  | Teknologiarako konpetentzia | Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia | Arterako konpetentzia | Konpetentzia motorra |
|------------------|-----------------------------|---|-----------------------|----------------------|
| Erdiko Maila     |                             |   |                       |                      |
| Maila Aurreratua |                             |   |                       |                      |

## 4.2. Beste talde batzuk

|                     | Ama-<br>hizkuntzan<br>komunikatzeko<br>gaitasuna | Atzerriko<br>hizkuntzetan<br>komunikatzeko<br>gaitasuna | Matematika-<br>gaitasuna eta<br>oinarrizko<br>gaitasunak<br>zientzia eta<br>teknologiaren<br>alorrean | Gaitasun<br>digitala |
|---------------------|--|---|---|----------------------|
| Erdiko<br>Maila     | ✓  |   |   | ✓                    |
| Maila<br>Aurreratua | ✓  |   |   | ✓                    |

|                     | Ikasten<br>ikasteko<br>gaitasuna | Gaitasun soziala<br>eta zibikoa | Ekimenaren<br>zentzua eta<br>enpresa-<br>espiritua | Kultura-<br>arloko<br>kontzientzia<br>eta<br>adierazpena |
|---------------------|----------------------------------|---------------------------------|--|--|
| Erdiko<br>Maila     | ✓                                |                                 |  |  |
| Maila<br>Aurreratua | ✓                                |                                 |  |  |

## 5. Baliabideak

### Informazio gidak

- KONTSUMITZAILE ETA ERABILTZAILAREN GIDA. Eusko Jaurlaritza. Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza. 2007.
- KONTSUMO ARDURATSUAREN GIDA. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. 2009

### Material didaktikoak

- KONTSUMITZAILEAREN HEZKUNTZARAKO 133 TAILER. Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo Zuzendaritza. 2004.
- KONTSUMITZAILE GAZTEA CD-ROMA. Kontsumitzailearen Heziketarako Sarea. 2001

### Web orrialdeak

- KONTSUMOBIDEREN WEBGUNEA  
[www.kontsumobide.eus](http://www.kontsumobide.eus)
- KONTSUMOPOLIS IZENEN LEHIAKETAREN WEBGUNEA.  
<http://www.consumopolis.es/fichasniv2.aspx?idioma=cas&b=C>
- ETXEKO BIRZIKLAPEN-ESKOLA  
<http://escuelas.consumer.es/web/es/reciclaje/online/mapa01.php>
- INGURUMENAREN KUDEAKETA  
[http://garbiker.bizkaia.eus/Esp/ca\\_Home.asp](http://garbiker.bizkaia.eus/Esp/ca_Home.asp)
- ZABORREN BILKETA PNEUMATIKOA  
[http://www.consumer.es/web/es/medio\\_ambiente/urbano/2003/04/23/60476.php](http://www.consumer.es/web/es/medio_ambiente/urbano/2003/04/23/60476.php)

## Helbide interesgarriak

Kontsumobide-ren kontsumoaren alorreko prestakuntza eta informazio zentroak

### Vitoria-Gasteiz

Adriano VI, 20-1º. 01008

Telf: 945 01 66 00

Fax: 945 01 66 01

Email: [formacion-araba@kontsumobide.eus](mailto:formacion-araba@kontsumobide.eus)

### Bilbao

Nicolas Alcorta, 2. 48003

Telf: 94 403 22 20

Fax: 94 403 22 21

Email: [formacion-bizkaia@kontsumobide.eus](mailto:formacion-bizkaia@kontsumobide.eus)

### Donostia / San Sebastián

Zarategi ibilbidea 82-84 Atz. 20015

Telf: 943 02 25 90

Fax: 943 02 25 92

Email: [formacion-gipuzkoa@kontsumobide.eus](mailto:formacion-gipuzkoa@kontsumobide.eus)